

“San Juan Jaiak direla eta, Udalak kultura arloko aldizkari bat argitara ematea nahi izan du” esaten genuen orain dela hogeita bost urte (nahiz eta eskuan duzuen hau, hogeita hirugarrena izan). Azken urteotan urte bukaera aldean aurkeztu izan badugu, **HERNANI 2016** urtekariarekin hasierako edizioetara bueltatu nahi izan dugu, egileentzat esfortzu eta “ahalegin desinteresatu” berezia suposatu arren.

Urte hauetan guztietan hamaika gai, hamaika egile eta hamaika aldaketa izan ditu argitalpenak, herriak, Hernanik, izan dituen bezalaxe; baina, azkenean, helburu bera izan du, hasiera-hasierako “bideari uko egin” gabe: Hernaniren eta hernaniarren ezagutzan sakontzea.

Aurten ere, “bete-betea datorren” **HERNANI 2016** honetan, gure ONDAREA jaso dugu. Hogeit bat artikulutan beste hainbeste egilek beren ekarpena egin dute, gure herria, Hernani, eta gure herrian, Hernanin, ari eta aritu diren hernaniarrok hobeto ezagut ditzagun: historia, artea eta arkitektura; arkeologia eta etnografia; natura eta mendia; musika eta bertsoak; hizkuntza, hezkuntza eta literatura; kirola; eta kondairak eta bitxikeriak. Eta beti, esan bezala, hernaniar eta hernaniarrok egingakoa ahaztu gabe, gure artean izan edo ez, anonimoak (heldu zein gazte) edo publikoagoak izan. Azkenean, Hernanik eta hernaniarrok dugunaren (eta garenaren) ezagutza zabaltzea iza(te)n da gure xedea.

Bestalde, ugari dira, eta izan dira, argitalpen honetan “guri” buruz idatzi dutenak. Gure eskerrak horiei guztiei, azkenean, horiek baitira, aldizkaria posible egi(te)n dutenak.

Eta eskerrak zuei, irakurleoi, ere; zuek baitzarete, urteak joan urteak etorri, *HERNANI* hori zuen eskuan uzteko ahaleginak egitera bultzatzen gaituzuenak.

Mila esker, denoi!

Hernaniko Udal Gobernu Taldea